

Salmahaia baino harantzago

Sektore sakabanatua da artisautza bai ezaugarrien aldetik eta bai artisauen iritzien aldetik ere

Artisau azokak ugaltzen doazen honetan, azoketako baldintzek eta artisauen beharrek parez pare egiten dute topo sarritan

Artisaua, eskulanak usadiozko erara egiten dituen laguna dela diote entziklopediek. Artisautza, berriz, artisauaren jarduna. Dena dela artisautza bera kanpotik ikusi edo barrutik bizi zeharo esperientzia ezberdina da. Hala diote artisauek. Tradizio eta eskulangintzaren ostean bertatik bizi izateko besteko diru lortzeko ahalegina dago. Sektore txikia da artisauena; hala ere, ezbaiek diruditenak baino sakonagoak dira; bai administrazioarekin dituztenak bai artisauen artekoak ere. Azoketako mahaietan ikusitako bitxiak baino harantzago doa Euskal Herriko artisautzaren egoera.

Sektore oso banatua da artisautzarena, eta hortan ados daude artisau eta elkarre guztiak. Ezbaiek hortik aurrera ageri dira. Artisautzak dituen arazo guztiak ezin zerrendatu ditzakegu ondoren, baina laburbilduz gero ondokoak azpimarratu dituzte haietako batzuek: legeztazearen inguruko ezbaia, azoken antolaketa, komertzializazioa eta sektorearen banaketa.

Artisau kopurua txikia da gizarteko beste hainbat sektoreekin konparatuz gero. Hala ere, artisau elkarteak ugarituz doaz. Guztiek ere ezberdintasunak dituzte beren artean; Artisautza tradizionalaren alde soilik aritzen diren elkarteak badira. Beste elkarte batzuek egungo artisautza ere babestu nahi dute bere baitan. Eskualdeka antolatzen dira zenbait erakunde, eta bada go Euskal Herri mailan lan egiten duen erakunde bakar bat, Arbaso. «Artisautzaren sektorea oso zabala da, eta antzina-koa. Horregatik bere baitan biltzen dituen beharrak ere anitzak dira. Hori dela eta gero eta elkarte gehiago gara, bakoitzak bere beharrak bete nahi baititu», esan



EDURNE KOCH

Artisau azokak izatearen behararen inguruan iritzi anitz aurkitu daiteke artisauen artean ere.

du Asun Esnalek Gabiltza artisau elkarteko presidentea. Hala ere, gero eta elkarte gehiago sortzeak ez dela beharrei eman erantzuna soilik dio Arbasoko Bernart Vidalek.

Artisauaren egoera legeztazea

Artisauen zerrenda ofizialak jasotzen ditu autonomo gisa aritzen diren artisauen izenak; hau da segurantzaren soziala ordaintzen dutenak. Bertan sortzen da egun artisauen artean darabiltzaten eztabaidarik latzenetakoa. Bernart Vidal Arbaso Euskal Herriko artisau tradizionalaren aldeko elkarteko presidentea da. Argi du berak artisautza goitik behera legezta egin behar dela.

MIKEL LIZARRAGA

Plazaola elkarteko kidea

«Elkarte bakoitzak bere interesak ditu, eta sarritan ez gara larregi biltzen».

Sektore banatua oso

EUSKAL Herri osoan artisau elkarteetan bazkide diren artisauak gutxi dira portzentaiak kontuan izanez gero. Guztira 51 elkarte inguru izango dira Euskal Herri osoan gutxi gorabehera; 31 iparraldean, launa Nafarroan eta Araban, zazpi Bizkaian, sei Gipuzkoan eta beste bat Euskal Herri osorako.

«Harri bat jaso eta artisau bat aurkitu daiteke gutxienez bertan», dio Bernart Vidalek Arbaso elkarteko kideak: «Baina artisaua lagun bakartia dela uste dut. Indibidualista eta sortzailea da. Artistaren perfiletik gero eta hurbilago dago artisaua. Artisauek ere gero eta gehiago sortzen duela uste dut. Sortzen duen momentutik bakartia da artisaua. Bere lanean barnatzen da eta sarri askotan elkartearen kontu guzti horietatik urrundu egiten da».

Ezezkor ageri da oso, eta egoera legeztazearen alde oso gogor. «Artisauen sektorea ez da existitzen. Eta sektorea esaten dut nolabait deitzearen bakarrik. Denak balio du artisautzaren munduan. Oihaneke legea dago indarre-

an bertan. Gainera, inork ez du entzuterik nahi benetako arazoak zeintzuk diren. Ez dira 200.000 lanpostu arriskuan jartzen. Artisautza lan beltzaren kabia da. Hori da eta horrela gaudenak ez bagara kexatzen Behin

Artisauak bazkide ez egitea ona eta txarra dela dio Bernartek. «Artisauak ez du izaten normalean besteekin elkartzeko bokaziorik», dio.

Mikel Lizarragak, Plazaola elkarteko kidea ere sektorean bada goela banaketa sakon bat dio: «Oso banatuak gaude: artisautzaren kontzeptuan berean. Elkarte bakoitzak bere interesak ditu, eta akaso ez gara larregi biltzen. Administrazioa bat da, baina arazo baten aurrean gaudenean ez dugu bat egiten artisauok. Ez gara kapaz ados jartzeko gure artean indarra egiteko. Gure aldetik ere organizazio falta dago», iritzi dio.

Lanaren ezaugarriek ere laguntzen dutela bakartasunean gehitu du Asun Esnalek. «Banakako lana da artisauona, eta horrek zatiketa dakar berarekin nolabait», dio.

izan bilera batean kargudun batek aitortu zuen ulertzen zuela artisau batzuek ezin dutela ordaindu egokitutako zerga. Orduan, publikoki esan dezatela hori eta status berezi bat sor dezatela. Bestela zuzendu egin behar da